

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

5773

64/2021 EBAZPENA, azaroaren 10ekoa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrekiko Harremanetarako zuzendariarena, Eusko Jaurlaritzak Arbitraje Batzordean izango dituen ordezkariak izendatzeko erabakia argitaratzea xedatzen duena.

2021eko azaroaren 9an egindako bileran, Gobernu Kontseiluak Eusko Jaurlaritzak Arbitraje Batzordean izango dituen ordezkariak izendatzeko erabakia onartu zuen. Horrenbestez, beharrezko zabalkundea emateko xedez, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea Eusko Jaurlaritzak Arbitraje Batzordean izango dituen ordezkariak izendatzeko erabakiaren testua, ebazpen honen eranskin gisa agertzen dena.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 10a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrekiko Harremanetarako zuzendaria,
JON IÑAKI URBINA GARCÍA DE VICUÑA.

2021eko azaroaren 12a, ostirala

ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO
HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN AZAROAREN 10EKO 64/2021
EBAZPENARENA

ERABAKIA, EUSKO JAURLARITZAK ARBITRAJE BATZORDEAN IZANGO DITUEN
ORDEZKARIAK IZENDATZEKO DENA

Ebazpen Batzordea arautzen duen ekainaren 30eko 13/1994 Legearen 7.1 eta 19.3 artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz, aipatutako 7.1 artikuluan aurreikusitako alde zuzeneko informazio-kon-tsulta Eusko Legebiltzarrari egin ondoren, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren proposamenez, Gobernu Kontseiluak, eztabaidatu ondoren, honako erabaki hau hartu du:

ERABAKIA:

Ondoren aipatzen direnak izendatzea Eusko Jaurlaritzaren ordezkari Arbitraje Batzordean:

José Ramón Bengoetxea Caballero jauna, Arabako Lurralde Atalari atxikitzeko,

Kepa Bilbao Gaubeca jauna, Bizkaiko Lurralde Atalerako,

Carmen Agoues Mendizabal andrea, Gipuzkoako Lurralde Atalerako.